

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Herriko jaiak ospatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak

Udalbatza honek, 2026ko ekainaren 10ean balio osoz egindako osoko bilkuran, herriko jaiak ospatzeko laguntzetarako deialdia eta oinarri arauak onetsi zituen. Horren gainean hartutako hirugarren erabakia betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2026ko abuztuaren 3a

Alkate-lehendakaria

GORKA SALAZAR SENSO

Herriko jaiak ospatzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen udal ordenantza zehatza

1. artikulua. Dirulaguntzen xedea

Ordenantza zehatz honen bidez finkatzen dira Gaubeako udalerriko herrietako jaiak eta/edo erromeriak finantzatzeko dirulaguntzen oinarriak, helburu hauekin:

- Herritarrek herriko jaiak antolatzen eta gozatzen parte hartzea indartzea.
- Bizikidetza aberasten laguntzen duten jolas, kultura eta kirol jarduerak egitea bultzatzea.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradunak izan daitezke Gaubeako udalerriko jai batzordeak eta kon-
tzejuak, baldin eta legez eraturta eta erregistraturta badaude.

Erakunde eskatzaileak egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eskaera aurkezten den momentuan bertan eta prozesu osoan zehar (emakida eta ordainketa).

3. artikulua. Deialdiaren publizitatea

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratuko da, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

Eskaera aurkezteko epeak ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko dira.

4. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko prozedura norgehiagoka araubidez egingo da.

5. artikulua. Diruz lagundu daitekeen programa

Orobat, auzokoen partaidetza eta gozamina dakartzaten jolas, kultura eta kirol programei emango zaie dirulaguntza.

Ez dira lagunduko lunch, afari edo antzekoetarako gastuak.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskaeren ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 943 434001 aurrekontu aplikazioari egotziko zaio, 2024ko aurrekontu orokorreko «administrazio batzarrentzako dirulaguntza jaietarako» kontzeptupean.

Deialdiko laguntzen zenbatekoa guztira, gehienez, 12.500,00 euro da.

Gehienez ere, 500,00 euroko dirulaguntza emango da erakunde bakoitzeko.

Hala ere, udalak izapidetze berezia eman ahal izango die interes bereziko hainbat programari, baldin eta dirulaguntzen zenbateko osoak ez badu gaituzten Gaubeako Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu aplikazioetan helburu horietarako esleitutako zenbatekoa.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

7. artikulua. Eskaera eta justifikazioa epea

1. Eskaerak eta justifikazioa, zortzigarren oinarrian aipatzen diren agiriekin batera, aurkezteko epea 2026ko abenduaren 30era arte izango da.

Udalaren sarrera erregistroan aurkeztuko dira, edo Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan adierazten diren bideetako edozeinez baliatuz.

2. Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko dokumentazioa aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

8. artikulua. Dokumentazioa

1. Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak:

— Fakturak edo frogak balioa duten kontabilitate agiri baliokideak.

— Jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutak.

— Gastuak justifikatzeko, ez dira onartuko datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak...:

- Emaila: izena edo sozietatearen izena, eta NAN edo IFZ.

- Hartzailea: egoitza eta IFZ (dirulaguntza jaso duen entitatea izan behar da).

- Gastuaren xedea.

- Data.

- BEZa: aplikatutako zerga tasa(k).

3. Programen aleak, non jasoko den Gaubeako Udalaren babesa dutela.

9. artikulua. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Eskaeren azterketa eta, hala badagokie, dirulaguntza ematea edo ezestea, haiek aurkezteko epea amaitutakoan egingo da, norgehiagoka araubidean.

Instrukziorako eta ebazpenerako organo eskuduna.

Ebazteko organo eskuduna alkatea izango da, informazio batzordeak aldeko irizpena eman ondoren.

Eskaerak aztertu ondoren, aurkeztutako eskaerei buruzko txostena egingo du informazio batzordeak.

Espedientea eta kide anitzeko organoak egindako txostena aztertutakoan, instrukzio organoak behin betiko ebazpena emango du, eta honako hauek adierazi beharko ditu: zer eskatzaileri eman behar zaien dirulaguntza, dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, ebazpenerako egin den ebaluazioa eta horretarako erabili diren irizpideak.

Alkateak ebazpen arrazoitu bidez ebatziko du dirulaguntzak ematea.

Ebazpen horretan hauek azaldu behar dira gutxienez: dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.

Eskaerak ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, aurkezteko epea bukatzen denetik; epe horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsitzat jo behar dira.

Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean, hura jakinarazten den unetik aurrera.

Era berean, alde zuretik, nahi izanez gero errekurtsua jarri ahal izango zaio alkateari hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkera).

10. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Deialdiaren ebazpena eman ondoren ordainduko da dirulaguntza, eta ezin izango dira ez aurretiko ez konturako ordainketak egin.

11. artikulua. Lankidetzak eta babesak

Erakunde onuradunak beharturik daude argitaratzen dituzten programa, kartel eta abarretan argi eta garbi adieraztera Gaubeako Udalaren babesa dutela.

Gainera, beti erabili beharko dira bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitaterako egiten diren kartel, testu eta agirietan.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein dirulaguntzekin batera, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

13. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaz sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak eta dagokien teknikariek txostena egin ondoren.

14. artikulua. Legeria osagarria

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian, Gaubeako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean eta dirulaguntzen lege orokorrean eta horren arautegian xedatutakoa hartuko da kontuan.